

EKOSISTEMAK

1. Zein da elikatze-katearen lehen maila?

- a) Ekoizleak.
- b) Kontsumitzaileak.
- c) Deskonposatzaileak.

2. Lotu izaki bizidun hauek elikatze-katean duten mailarekin.

- | | |
|-----------------------------------|-------------------------------------|
| a) Perretxikoa | e) Ekoizlea |
| b) Goroldioa ^{musgo} | f) Lehen mailako kontsumitzailea |
| c) Trikua ^{erizo} | g) Bigarren mailako kontsumitzailea |
| d) Barraskiloa ^{caracol} | h) Deskonposatzailea |

3. Ekosistema hauetatik, zein da mistoa?

- a) Itsasoak eta ozeanoak.
- b) Putzuak eta urmaelak.
- c) Kostaldeak.

4. Adierazi zer baieztapen den zuzena.

- a) Iberiar penintsulako basorik bereizgarrienak ^{distintivo} mediterraneoak eta atlantikoak dira.
- b) Baso atlantikoan, zuhaitz hostoiraunkorrak dira nagusi; esaterako, pinuak eta arteak. ^{encina}
- c) Iberiar penintsulako basoetako fauna ^{poca} urria da, eta espezie gutxikoa; nekez ikusten dira ugaztunak edo hegaztiak.

5. Lotu organismo bikote bakoitza bien arteko harreman motarekin.

- | | |
|--|-------------------|
| a) Arkakusoa-Txakurra
<small>pulga</small> | d) Harrapakaritza |
| b) Sugea-Sagua | e) Parasitismoa |
| c) Hesteetako flora-Gizakia
<small>flora intestinal</small> | f) Komentsalismoa |

invasora

6. Animalia hauetatik, zein jotzen da espezie inbaditzaileztat?

- a) Labezomorroa.
cucaracha
- b) Argentinako papagaia.
- c) Katamotz iberiarra.
lince

7. Animalia hauetatik, zein jotzen da galzoriko espezieztat?

- a) Bisoi europarra.
- b) Muskuiluak.
mejillones
- c) Mihi-arraina.
lenguado

8. Adierazi zer baieztapen diren zuzenak.

- a) Mapako orientazioari esker, jakin dezakegu zein den mapako bi punturen arteko distantzia erreala.
- b) Mapek Lurraren gainazaleko eremu bat irudikatzen dute.
superficie
- c) Eremu jakin bateko landarediaren mapa gaikako mapa da.